

EUSKAL HIRIGUNE  
ELKARGOA,  
TRANTSIZIOAREN  
ERAGILE NAGUSIA



2017KO GARAPEN  
IRAUNKORRARI  
BURUZKO TXOSTENA



*EDITORIALA*

# ELKARTASUNEZKO LURRALDE IRAUNKOR ETA BIZI BATEN ALDE EKIN!

Euskal Hirigune Elkargoak aurkezten duen garapen iraunkorreko lehen txostenaren mamia osatzeko euskal lurraldean lehengo hamar herriarteko elkargoek, Hautetsien Kontseiluak eta Garapen Kontseiluak egin dituzten lanak baliatu ditugu.

Engoitik, Euskal Elkargoari dagokio ingurumen, ekonomia eta gizarte datu horiek guztiak egituratzea, gizarte zibil antolatuaren gaitasuna baliatu eta urrunago joatea, herritar orori dei egin eta lurralderako garapen iraunkorraren plana prestatzeko.

Nehoz ikusi gabeko krisi ekologiko batetan garelarik, Euskal Herriak energia eta klima desafioko altxatu behar ditu, bai eta euskal biztanleen loratzea lagunduko duten ekonomia eta gizarte orekak sortu ere.

Euskal Elkargoa, dokumentu honen bitartez, bere politika publiko orotan garapen iraunkorreko estrategia integratuaren xedea ezartzera engaiatzen da. Nazio mailan Energia Trantsiziorako Planak (2015-2020) ezarri xedera aurrindurik beharko du izan. Horren egiteko, egiazko mugimendua eragin beharko du lurraldean, lankidetzak lotu beharko ditu, ekimen berritzaileak bultzatu, gaiari loturik diren eragileak elkarretaratu...

Gure asmoa, elkarrekin etorkizun desiragarria asmatzea da, garapen iraunkorra gure ekintzaren erdi-erdian ezarriz elkargoaren eremuan!

**Jean-René Etchegaray,**

Euskal Hirigune Elkargoaren Lehendakaria

**eta Martine Bisauta,**

Trantsizio Ekologiko eta Energetikoa & Elkargo  
Herritararen Lehendakariordea



# AURKIBIDEA

- p.4-5 Sar hitza
- p.6-9 Lurraldearen energia trantsizioa laguntzea
  - Bizitegien energia berriztapena areagotzea
  - Tokiko energia berriztagarriak garatzea
- p.10-11 Lurraldea iraunkorki antolatzea
- p.12-13 Mugitze molde alternatiboak garatzea
- p.14-15 Ekoiztea & kontsumitza arduraz eta iraunkortasunez
- p.16-17 Ororentzako elikadura osasuntsu eta iraunkorraren bidea hartzea
- p.18-19 Hondakin gutxiago sortzea eta sortu direnak hobeki baliaraztea
- p.20-25 Ororen ondasunak joritzea eta transmititzea
  - Ur baliabideak eta inguruneak zaintzea
  - Naturaren halabeharretara egokitzea (higadura, urperatzeak, uholdeak)
  - Naturaren lekua errespetatzea
- p.28-31 Ororen beharretara egokitu zerbitzuak antolatzea
  - Elkarbizitza garatzea
  - Osasuna eta artamenduak oroien eskura izan daitezen bultzatzea
  - Kultura, hizkuntzak eta aisialdia eskuragarri egiten laguntzea
- p.32-33 Sentsibilizatzea, formatzea & informatzea
- p.34-35 Eredugarri izateko asmoa



# SAR HITZA

Hamar urte luzetik hona garapen iraunkorrerako lurralde dinamika kolektiboa daramagu Ipar Euskal Herrian. Hautetsiek, sozioprofesionalek, elkarteek, enpresek daramate dinamika hori. Lurraldea garatzeko ereduaz gogoetatzen laguntzen du, gizakiak eta planeta kontuan haboro hartzen dituzten bestelako bideak proposatu eta ibiltzera bultzatuz hain zuzen ere.

2017ko urtarrilaren lehenean sortu zenetik, dinamika horri lotu da, etengabe hobetzen joateko eta zeharkakotasuneko logika batez. Lehengo herriarteko elkargo zaharrek jadanik abian eman zituzten urraspideak hartu ditu oinarri, hala nola Euskal Kostalde-Aturriko eta Hego Lapurdiko Klima-Aire-Energia Planak eta TEPOS/TEPCV (Hazkunde Berdearen Aldeko Energia Positibodun Lurraldea) urraspideak Garazi-Baigorri eta Xiberoan. Euskal Herriko 2015-2018ko Hazkunde Berdearen Aldeko Energia Positibodun Lurralde urraspidea Hautetsien Kontseiluak eman zuen abian, Garapen Kontseiluarekin batera, eta egiteko hori ere bere gain hartu du, bai eta sendotu, Euskal Hirigune Elkargoak, energiari, elikadura gobernantzari eta natura ondareari buruzko alorrekin.

Jardun horretan jarraitu eta areago egiteko, Euskal Elkargoak horretarako Zuzendaritza sortu du, ekologia eta energia trantsizioa zeharka landu nahiz bere politika publiko orotan. Horrez gain, lurralde osoan «Ingurumenari eta bizi inguruneari babesa eta balioa ematea» hautazko eskumena erabiltzea erabaki du ere. Azkenik, 2018ko hastapenean, Lurraldeko Klima-Aire-Energia Plana (LKAEP-PCAET) prestatzeari ekin dio.

Hala eginez, aldagetaren bidean kokatu da bete-betean. Hala bere politika publikoetan nola bere barneko jokabideetan abian eman dituen edota proiektuan dituen ekintza guztiak dira lurraldearen garapen iraunkorraren aldeko engaiamendu horri loturik. Txosten honek horixe du erakutsi nahi.



## TXOSTENA NOLA IRAKURRI?

Aurkibideko gai bakoitzari dagokionean, hautetsiek eta herritarrek honako hauek atzeman ditzakete: lurraldeak dituen xede eta testuinguru elementu nagusiak, giltza zenbakiak, egin daitezkeen aitzinatze aukerak eta erabiltzaileentzako zenbait egintza. Azken kapituluak Euskal Elkargoak eredugarri izateko bidean bere barnean egin dituenak azaltzen ditu.

Zeharkakoak nola diren, Euskal Hirigune Elkargoaren ekintzak garapen iraunkorraren bost xedeen bidean doaz. Xede horiek aitzinera ekarriak dira nazioarteko adierazpen eta testu zenbaitetan, elkarren meneko dira eta guztiak batera hartuz joan behar da haiei buruz. Halatan, bada, ekintzen eta xedeen arteko lotura ekintza bakoitzean seinalatzen da, honako piktograma hauen bitartez:



## ZEIN ASMO DU TXOSTEN HONEK?

2010eko uztailaren 12ko legeak, ingurumenaren aldeko nazio mailako engaiamendua ezartzen duenak, Grenelle 2 deituak, garapen iraunkorraren egoerari buruzko urteko txostena egitera behartzen ditu 50 000 biztanletik gorako tokiko kolektibitate edota herriarteko elkargo guztiak.

Txosten hori hautetsiei aurkeztu behar zaie, aurrekontu orientabideen gaineko eztabaida egin aitzin. Aukera ederra zaigu hori eztabaiden erdian eman ditzagun -prestatze bidean dugun elkargo proiektuaren bitartez, adibidez- lurraldea iraunkortasunari buruz eramatea, garapen iraunkorrak jokoan jartzen duen guztia eta kolektibitateak horri erantzuteko erabili behar dituen bitartekoak.

Honako txosten hau lehena du Euskal Elkargo berriak. Zenbait ekintza adierazgarri aurkeztuz erakusten digu kolektibitateak garapen iraunkorrari dagokionean duen engaiamendua. Sintetikoa da, ez du guzti-guztia azaltzeko asmorik. Kolektibitatearen Zuzendaritza Orokor Ordeekin batera, zeharkako zerbitzuekin eta lurralde eremuekin prestatu dugu; parte hartzeari zabalik izan den talde lanaren emaitza dugu.





## LURRALDEAREN ENERGIA TRANTSIZIOA LAGUNTZEA

# BIZITEGIEN ENERGIA BERRIZTAPENA AREAGOTZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK


Euskal Elkargoak, 2018 urte honetan, bere Lurraldeko Klima – Airean – Energia Plana prestatzeari ekin dio. Egiatzko dokumentu estrategikoa dugu LKAEP-PCAET hau eta oinarrian ditu lurralde diagnostikoa, helburu argiak eta sei urterako ekintza plan bat, kolektibitateak energia trantsizioaren koordinatzaile zeregina egin dezan bere lurraldean.

Energia trantsizio horren lehen egitekoetako bat kontsumitze maila hastapenetik bertatik murriztea da, beharra murriztuz (energia soiltasuna) eta ekipamenduak kontrolatuz (energia eraginkortasuna). Bizitegiak dira lurraldean energia gehien kontsumitzen dutenak. Funtsezkoa da, hortaz, Euskal Elkargoak zerbait egin dezan energia berriztapenaren alorrean.



### GILTZA ZENBAKIA % 32

bizitegi sektoreak Ipar Euskal Herriaren 2012ko energia bilanean ageri zuen energia kontsumoaren ehunekoa da.



### AITZINATZE AUKERA

## OPTIMIZATZEA

Jadanik bidean diren zaharberritze programekin jarraitzeaz gain, jabee beren zaharberritze proiektuaren etapa orotan ematen zaien laguntza optimizatu beharko da, dituzten behar hala tekniko nola diruzko, juridiko edota bestelakoei erantzunez.



## OROREN INTERESEKO PROGRAMAK, bizileku pribatuen zaharberritzeko diruzko tresnak

Bizitegi pribatuen multzoa zaharberritzea egiteko nagusia zaigu, honako hauengatik, besteak beste: duintasunik gabeko bizitegi eta oso andeaturik diren bizitegiaren kontra aritzeko, energia prekaritatearen aurka aritzeko, autonomia galtzen ari direnak beren etxean atxikitzeko, eskaintza hitzartua garatzeko. Ororen Intereseko Programa (OIP-PIG) lurralde kolektibitateak zuten abian eman. Bi OIP-PIG genituen bidean Ipar Euskal Herriaren 2017. urtean: bat Euskal Kostalde-Aturri hirigunean, eta bestea 64 Departamenduak zeraman, lurraldearen gainerako lekuetan. 2018. urte honetan, Ipar Euskal Herri osorako baliabide bakarra hedatu ahalko dugu, diru maila apaleko eta apal-apaleko jabeei bizilekua hobetzeko lanetan teknikoki eta diruz laguntzeko.



### IZARIRA EGIN

## laguntza partikularrentzat

Euskal Elkargoak bizilekuen energia berriztapenerako plataforma eraikitzeari ekin dio. Egiatzko leihatila bakarra dugu baliabide hori eta zaharberritze proiektu bat duen herritar orori harrera, orientabidea eta laguntza emateko balioko du.

Elkargoa, 2018an, Energia Gutxiago Xahutzeko Lanetarako Eskualde Agentziarekin (SEM ARTEE) arituko da elkarlanean, Ipar Euskal Herriaren areago ari dadin agentzia hori. ARTEE agentziak 15 urtetik gorako banakako bizitegi jabeei zaharberritze proiektuan laguntzeko baliabide bat proposatzen die, egin beharreko lanen maila aztertze fasetik hasi eta lanak egiteko faseraino.



### TOKIKO BIZILEKU PLANA (TBP-PLH)

## eta energia trantsizioa

Tokiko Bizileku Plana dokumentu estrategiko nagusienetako bat da, Lurraldeko Klima, Airean, Energia Planarekin eta Hiri Lekuakdaketen Planarekin (HLP-PDU) batera; horren prestatzen 2018an hasiko gara. Bizilekuei buruzko politika publikoaren sei urterako helburuak zehazten ditu, batez ere bizitegi eta ostatatze gaitan, hiri berriztapenari eta gizarte mistotasunari dagokienean, eta eraikinak mugikortasun urria dutenei helgarriago egiteari dagokienean, beti ere bizitegi mota desberdinen eskaintza orekatuki banatzearen printzipioa betez. 2018. urtean diagnostikoa eta orientabideen zehaztea egingen da batez ere.



TOKIKO

# ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Euskal Herriak hainbat energia berriztagarri mota ditu, eguzki energia, energia hidraulikoa, haize energia, itsas energiak, biomasa. Zehatza da Euskal Herrian trantsizioak duen erronka. Izan ere, datozen 30 urteotan energia fosilak bazter uzteko aukera emanen digun «tokiko sorta» atzematean datza.


Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriaren energia trantsizioa bultzatu behar du, batez ere tokiko energien eta energia berriztagarrien ekoizpena garatzen lagunduz. Helburua lurraldea energian autonomo izaterantz joan dadin da.



## GILTZA ZENBAKIA

545 GWh

Tokiko energia berriztagarri ekoitzi da 2015ean, hau da, lurraldeak dituen energia beharren % 10 baino gutxiago.



## AITZINATZE AUKERA

## AREAGOTZEA

Energia berriztagarrien garapena areagotzea, adar bakoitzaren ahalmenak baliatuz eta lurraldearen ahalak kontuan hartuz.



## TOKIKO EGUR ENERGIAREN adarraren garapena sostengatzea

Euskal oihanak ia 75 000 hektarea ditu eta energia aldetik ustiatuak izateko energia iturri asko du. Egur energiaren adarra garatzea aztertu beharreko gaia da euskal oihan guztiak kontuan hartuz. Dagoeneko bada jardun anitz bidean: egur bidezko bero sareak garatzeko ekintzak abian ematea, hornitzeko logistikaren egituratzekoak, eragileen mintegia sareratzeak... Kopiatzeko ekintzen artean, hor dugu SCIC Sugarai sozietatearena. 2015ean sortu zen, Mendiben, Hergaraiko ibarrean, eta tokiko egurrez hornitzen du Euskal Hirigune Elkargoaren Donibane Garaziko igerilekua berotzen duen bero sarea.



## HERRITARREN INBESTIMENDUA laguntzea fotovoltaikoaren garapenean

Tokiko meteorologiari buruzko zenbait aurreiritzik erran ohi dutenaz bestela, Euskal Herriak eguzki ahalmen oso handia du energia sortzeari dagokionean. Euskal Elkargoak, hasiera batean, eguzkia ongien baliatzeko aukera duten hirugarren sektoreko bere eraikinetan garatu nahi du eguzki energia fotovoltaikoa. Proiektuak herritarren inbestimendura zabalik izanen dira I-ENER kooperatibarekin arituz.



## EUSKAL KOSTALDEKO

### Itsas Energia Berriztagarrien ahalmena ustiatzea

Eskualdeak eta Akitaniako Itsas Hegiko Interes Publikoko Elkargoak sostengatzen dute, orain dela urte zenbaitetik hona, itsas energia berriztagarrien adarra sortzea. Diagnostikoak ondorio argiak eskaini ditu: euskal kostaldeak ahal handia luke uhinen energia baliatzeko. Euskal Elkargoak eta Eskualdeak bat egin dute, beraz, berrikuntza lankidetzan baten bidez, uhinen energia sortzeko ustialekua eraiki ote daitekeen eta, hala bada, zein baldintzatan, aztertzeko. Blue Sare izeneko mugazgandiko proiektuak, berriz, adar honetan ari diren guztiak sare batera bil daitezela laguntzeko asmoa du.



## LURRALDEA

# IRAUNKORKI ANTOLATZEA

## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Lurraldea iraunkorki antolatzea lehen mailako beharra bilakatu zaio Euskal Hirigune Elkargoari. Laborantza eta natura guneen ahultzea, bizileku motak zatikatzea, lekualdaketak eta baliabideen kontsumoa areagotzea: horiek guztiak ditu jokoan, horiei guztiei behar die aurre egin lurraldeak eta horrek lurraldea bestela antolatzerara behartzen gaitu, xuhurkiago, erasoak gainditzeko egokiago eta baserri aldean eta hiri aldean artean orekatuago.

Halatan, bada, plangintza eskumena (THP, gisa horretako hirigintza dokumentuak, herri mapak) hartzea tresna osagarria zaio Euskal Elkargoari, ekintza hitzartuak gauzatzeko.

Horrez gain, mendiaren gaiari heltzea erabaki du eta politika azkar eta argia eman du plantan (mendialdearen ordezkaritza eta laborantza-mendialdea batzordea sortu ditu).



## LABORANTZARI LEKU HANDIAGOA egitea hirigintza dokumentuetan


Beren hirigintza dokumentuak (hTHP eta THP) prestatzerakoan, Bidaxuneko Lurraldeak eta Hazparneko Lurraldeak, 2017an, jarraitu zuten laborantzak beren lurraldeetan duen etorkizuna aztertzen. Diagnostikoaren ondorioz, azterketa bat egin dute, lurralde horietako hautetsiek eta eragileek beren proiektuetan laborantza koka dezaten eta, hartara, laborantzaren nondik norakoa dituzten asmoen arabera gerta dakien eta ez ezinbestean jasan beharrekoa. Azkenik, lurralde horiek nahi den etorkizunerantz bideratzeko aholkuak proposatu dira.



## GILTZA ZENBAKIAK

% - 9,3

10 urtetan,  
Laborantza Eremu  
Baliagarria (LEB-SAU)  
136 980 ha izatetik  
124 195 ha izatera  
murriztu da, hau da,  
laborantza lurren



## AITZINATZE AUKERA

## BABESTEAK

Euskal Elkargoa lurraldeko zabalera handiagoa hirigintza dokumentuz estaltzen saiatuko da eta kopurutan zehaztu xede estrategikoak finkatuko ditu, batez ere lurren xahutzea gutxitzeari dagokionean.



## IPAR EUSKAL HERRIA elkarrekin pentsa eta eraikitzeko gutuna

Gobernantza gutun bat adostu zuten, 2017ko irailean, Euskal Hirigune Elkargoak eta Herriek «Tokiko Hirigintza plana, gisa horretako hirigintza dokumentuak eta herri mapak» deitu eskumena gauzatzeko nolako lankidetzak erabiliko dituzten zehazteko. Elkar aditze zabal baten emaitza da gutun hori, hautetsiekin, lurralde eremuekin eta Auzapezen Herriarteko Biltzarrean hitzartu baita, eta herriak izendatzen ditu hurbiltasunaren eta tokiko errealitateen bermatzaile; Euskal Elkargoak, berriz, lurralde osoa koherentziaz eta elkartasunez antolatuko denaren bermea emanen du.



## EUSKAL MENDIALDEA ESKUALDE mailako Naturagunea (EN-PNR) aztergai

Orain dela hamar bat urte abiatu euskal medialdearen garapen iraunkorrari buruzko gogoeta bati segida emanez, sindikatu batzordeen elkarteak Eskualde mailako Naturagune baten egokitasunari buruzko azterketa abiatu zuen, 2017. urtean, Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Akitania Berri Eskualdearekin batera. Jokoan da mendialde bizi eta erakargarria atxikitzea eta hango baliabideak zaindu eta balioa ematea. Azterketak elkar aditzea erabiltzen du usu; 2018an bururatuko da eta Eskualde mailako Naturagune baten sortzeak ekar lezakeen gainbalioa agertu eta eremu zehatza proposatu beharko ditu.



## AKOMEATURIKO ANTOLAMENDU EREMUEN

### antolaketa iraunkorra: Arkinova-ren adibidea

Angeluko Juzan larreetan kokaturik da Arkinova izeneko Akomeaturiko Antolamendu Eremua eta eraikuntza iraunkorraren sektoreari buruz ari da. 2017an, energia hornikuntzari buruzko azterketa bat egin zen, emaitza oneko tresneria eta energia berriztagarriko tresneria instalatzea bultzatzeko. Aholkuetako bat eremu osoan energia fotovoltaikoa hedatzea da eta 2018. urtean gauzatu da.

## BAI ETA...

2017an, Euskal Kostalde Aturri hTHParen ingurumenaren hastapeneko egoera egin da.



## MUGITZE MOLDE

# ALTERNATIBOAK GARATZEA

## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Jardute eremu berria eta eskumen berriak (bereziki herriarteko lineak eta eskola garraioa) dituelarik, Ipar Euskal Herri-Aturri Hirigunearen Mugikortasunen Sindikatua (SMPBA) Euskal Elkargoaren adar armatua da mugikortasunari dagokionean.

Hiriko Lekualdaketen Plana (HLP-PDU) egiten ari da SMPBA sindikatua, egiako estrategia garatzeko, hala espazioaren antolamenduari dagokionean nola garraio zerbitzu berriak hedatzeari eta mugikortasun iraunkoragoak sustatzeari dagokienean. Urraspide hori Lurraldeko Klima-Airea-Energia Planarenarekin eta Tokiko Bizileku Planarenarekin batera prestatuko da, politika publikoen arteko koherentzia eta osagarritasuna hobetzeko asmoz.



## TALDE GARRAIOBIDEEN MULTZOA energia trantsizioan

Ipar Euskal Herri-Aturri Mugikortasunen Sindikatuak mugikortasun eskaintza berriak garatzen dirau. Alde batetik, dituen ibilgailuak zaharberitzen ditu eta, beste aldetik, ibilgailu berriak erosten ere. Egiteko horren honako adibide hauek aipa ditzagun:


- 2017 hondarrean, 3 joan-jinkari elektriko erosi zituen, Biarritzeko hiribarnerako;
- Hegobus sareko ibilgailu hibridoak testatzen ari da;
- Eta Tram'Bus % 100ean elektrikoaren proiektuan egin inbestimendua, noski.



## GILTZA ZENBAKIA

% 82

da lanera joateko, 2013an, autoa, kamioia edo furgoneta erabiltzen zuten langileen ehunenekoa.



## AITZINATZE AUKERA

## MURRIZTEA

Euskal Elkargoak ehuneneko hori apaldu nahi du eta horretarako lurralde eta norbanako bakoitzari egokitu zerbitzuen eskaintza garatzen du eta ibilgailu garbiak bultzatzen.



## KINTOA MUGI, Aldude ibarrean egin esperimentazioa

Aldudeko ibarra esperimentazio lurralde gisa hautatu da mendialdeko mugikortasunei buruzko nazio mailako ikerketa-ekintza batentzat. Diagnostikoa eta jendeen parte hartzeari zabalik ziren lantegiak egin ondoren, tokiko AIBA elkarteak gidatu du operazioa eta horretarako mugikortasun misioaren arduradun bat kontratatu du: komunikazioa herrixketan eta enpresetan; animazioak eta sentsibilizazioa; txirrindak autozerbitzuan, ibarrean gertatu ekitaldietan; auto berean bidaiatzeko biltzea bultzatzea, eta joan-jinkari erregularra plantan ematea Arrosako tren geltokitik Urepelera joateko. Euskal Elkargoak bere gain hartu du, 2017ko abenduan, joan-jinkari hori eta, horrela, zerbitzu berri hori iraunkortu du, oso gustukoa gertatu baitzaie hileroko erabiltzen duten 250 erabiltzaileei.



## TRAM'BUS PROIEKTUA, mugikortasun proiektu egituratzailea

Tram'Bus proiektua bere bidea egiten ari da, lehen linea 2019ko udan irekitzeko xedearekin. Bidean diren lanak ibilgailuaren barne eta kanpo diseinua zehazteko lanak dira, azken geltokian eta biltokian karga azpiegitura berritzaileak asmatzekoak, bai eta bideetan egin beharreko obrak ibilbidearen erdia baino gehiagoan bere bide berea ukanen duen autobusa plantan emateko. Lehen prototipo bat aurkeztu zen jadanik jendeartean, garraio publikoaren nazio mailako topaketetan, 2017ko urrian.

## BAI ETA...

- Bizikleta azpiegiturak eta zerbitzuak garatu dira: mugazgandiko Eder-bidea proiektua, argindarrez lagunduriko bizikletak erosteko laguntza eta maileguak...;
- Lurralde osoan darrai lekualdaketa planak plantan emateko laguntza: Izarbel, Baiona, Boncolac, Turboméca eta abarreko ikastetxeak... ;
- Mugazgandiko SmartMob eta E-Mobask proiektuek txartel salmentan eta bidaiarientzako informazioetan eskaintza berria garatzeko xedea dute.



EKOIZTEA  
& KONTSUMITZEA

# ARDURAZ ETA IRAUNKORTASUNEZ



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Eskuhartzeko dituen baliabideen bidez, Euskal Hirigune Elkargoak tokian erroturik diren ekonomia adarrak eta jarduerak garatzen laguntzen du, jarduera eta adar berritzaile eta arduratsuak, kalitatezko lanpostu iraunkorrak sortzen dituztenak garatzen, alegia.

Bere sortze beretik, Euskal Elkargoak norabidea erakutsi du argiki, «laborantza» eskumena bere gain hartzea erabaki baitzuen. Laborantza ez zaie baitezpadako eskumena hirigune elkargoetara. Halarik ere, Euskal Hirigune Elkargoak gai nagusi hori bere gain hartzea erabaki du, bere lurraldearen etorkizunerako gai nagusia baita, eta horrela eginez, ororentzat bidezko eta zuzen diren ekoizte moldeak bultzatzea.

Turismoa dugu Euskal Elkargoak bereziki sostengatzen dituen beste adarretako bat. Turismo arduratsuago bat garatzeari loturiko ekintzak sortzen ari dira, planetaren etorkizunari gero eta adiago diren bezeroen eskaintzak hartaraturik.



## GILTZA ZENBAKIAK

122 000

2014\* urtean, Ipar Euskal Herriko 122 000 lanpostuetatik % 4 laborantza lanpostu ziren eta ia % 8 turismokoak. Turismoak lanpostu sortzaile izaten darraien bitartean, laborantzan, aldiz, behera doa erregulariki lanpostuen kopurua.  
\*Iturri INSEE



## AITZINATZE AUKERA

## AZKARTZEA

Euskal Elkargoak plantan ematen duen ekonomia garapenerako estrategiak lanpostuak finkatu eta garatzeko asmoa du, batez ere laborantza sektorean.



## ETXALTE LAB

### abeltzantzan ari den test etxalde berria

«Etxalte Lab» baliabideak, enpresa mintegien ereduari jarraituz, aukera eman nahi die laborantza proiektuak dituztenei beren jardun hori entseatzeko, kolektibitateak eskura ematen dizkien etxaldeetan, beren kokatzea behin betiko finkatu aitzin. Horren egiteko, bi etxalde erosi ditu Euskal Elkargoak; haietarik bat Sarrikotapean, non, egun, laborantza biologikoa egiten duten bi baratzezain ari baitira. Bigarren proiektua Etxebarren kokatua da, 38 hektareatan, eta transhumantzian egin esnerako ardien abeltzantzakoa eta haragirako behien abeltzantzakoa da. Hautagaiantzako deialdia egin da 2017ko hondarrean, proiektu eramailea nor den jakiteko.



## TURISMO IRAUNKORRAGOIA egiten engaiatzen diren turismo eragileak

Euskal Hirigune Elkargoa turismo iraunkorrako baten alde engaiatzen da hemendik goiti. Hartara, egun, Zuberoko lurraldean, aisialdiko higiezinak laguntzeko baliabide bat entseatzeko ari da, turismo apartamendu mublaturik jabeentzat. Xedea: maila goratzea eta aisialdiko ostatatze eskaintza sailkatzea (turismo apartamendu mublaturik eta aterpeak), hornikuntzak eta barneko apaindurak modernizatzea eta energiaren faktura apaltzea. Azkenik, 2018an, IEZI Euskal Itsas Hegia elkartearekin elkarlanean, Euskal Herriko natura ondareaz sentsibilizatzeko ekintzak egiten ditu Euskal Elkargoak.



## ENPLEGUA

### eta trantsizio ekologiko eta energetikoa


Hazkunde Berdearen Aldeko Energia Positibodun Lurralde (HBAEPL-TEPCV) estrategiaren barnean, Euskal Hirigune Elkargoak azterketa bat darama, honako bi helburu hauekin: ekologia ete energia trantsizioak lanpostuetan duen eragina zenbatzea eta eraginpean diren lanbideen aldaketa laguntzea. Azken fasea 2018an egiten da eta bi jardun eremutarako aholkuak ezartzeko aukera eskainiko digu: laborantzarentzat eta turismoarentzat.





ORORENTZAKO  
ELIKADURA OSASUNTSU ETA

# IRAUNKORRAREN BIDEA HARTZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Elikadurak mota anitzeko gai anitz jartzen ditu jokoan, hala nola baliabideak iraunkorki kudeatzea, bioaniztasuna atxikitzea, eragile guztiei -ekoizleei bereziki- behar bezalako ordaina ematea, elikamolde osasuntsurako heziketa, guztiok kalitatezko tokiko elikagaiak eskura izatea, etab.

Erronka nagusi bilakatu zaie lurraldeei eta egiazko politika publiko gisa behar da kokatu.



## GILTZA ZENBAKIA

% 2,8

da laborantza eremu baliagarritik (LEB-SAU) -goi larreak alde batera utziz- laborantza biologikoan den ehuneko.



## AITZINATZE AUKERA

## AREAGOTZEA

Jantoki kolektiboetan produktu biologikoak sartzearen ondorioz, handitu beharra dago laborantza eremu baliagarritik laborantza biologikoari eskaintzen zaion zatia, sortzen ari den eskaintzari arrapostua emanen bazaio.



## LABORANTZA BIOLOGIKOAREN GARAPENA

### Garro sozietatea sostengatzea

Interes Kolektiboko Garro Sozietate Kooperatiboak 9 hektarea lur ustiatzen ditu, Mendiondo herrian, barazkiak eginez aire zabaleko eta berotu gabeko berotegietan. Laborantza biologikoaren baldintzen bilduma betez lantzen dituzte landareak eta sasoiaren arabera, berrogeitik gora landare mota izatera heltzen dira.

Sozietate horren garapena sostengatzeko, Euskal Elkargoak handitu du sozietate kooperatiboaren kapitalean duen parte 23 825 eurotaraino. Halatan, bada, sozietate horrek jarraituko du zuzeneko salmenta egiten familiei, haurtzaindegiei, eskola jantokiei eta abarrei.



## LURRALDERAKO ELIKADURA PROIEKTUA

### prestatzea (LEP-PAT)

Lurralderako Elikadura Proiektuak elkar hurbildu nahi ditu ekoizleak, eraldatzaileak, banatzaileak, lurralde kolektibitateak eta kontsumitzaileak. Lurraldeetan laborantza eta kalitatezko elikadura garatu nahi ditu ere. Lurralderako elikadura proiektuak laborantzaren eta elikaduraren diagnostiko partekatua hartuko du oinarrian, ekintza baliagarriak zehazteko; ekintza horietako batzuk Euskal Hirigune Elkargoak bere gain har ditzake. Elikaduraren Kontseilua sortuko da 2018an, tokiko eragileekin, ekintzak hobeki koordinatuak izan daitezzen eta baliabideen partekatze berriak eta proiektu berriak bultzatzeko.



## HERRIEI JANTOKI KOLEKTIBORAKO proiektuan laguntzea

Eskola jantokietan eragitea garrantzitsua da elikadurari lotu jardun publikoarentzat. Produktuak hurbilekoak eta sasoiak izan daitezzen bultzatzeko aukera ematen baitu, bai eta prezioan eragiteko aukera ere. Haurren artean elikadura orekatuari eta elikatzeari buruzko pedagogia egiteko parada ematen du ere. Euskal Elkargoak herriekin batera engaiatu nahi du eskola jantoki arduratsugoak egiteko, gero eta gehiago tokiko produktuak eta produktu biologikoak kontuan hartuko dituztenak. 2018. urtean, jokamoldeak, zailtasunak eta beharrak hobeki ezagutzeko diagnostikoa eginen da herri bakoitzean.


## BAI ETA...

- Euskal Eurohiriko kolegioen arteko eskola trukaketa programaren barnean, ikasleak elikadura iraunkorraren eta tokiko produktuen gainean ari dira lanean.



## HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEA ETA

# SORTU DIRENAK HOBEBE BALIARAZTEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Hondakinak sortzea saihestea eta sortu direnak biltzea eta baliaraztea eskumen izarra da ingurumenari dagokionean. Euskal Elkargoak egiten du etxeko hondakinen eta haien idurikoen bilketa; haiek lekuz alda eta tratatzea, berriz, Bil Ta Garbi sindikatuak du egiten.

Haratago joan nahiz, Euskal Elkargoak bere gain hartu zuen, 2017ko irailean, «Herri lanek eta eraikitze jardunek sortu hondakin bizigabeen baliarazteko eta biltzeko guneak sortu eta kudeatze» eskumena. Hondakin mota hori ez da oraino behar beste tratatua, baina hemendik goiti egitura egokia ukanen du.



## GILTZA ZENBAKIA

% 69

Etxeko hondakinen batez  
besteko baliarazte maila:  
% 69, Bil Ta Garbi  
sindikatuaren eremuan  
2016. urtean.



## AITZINATZE AUKERA

## AREAGOTZEA

2020rako helburua:  
etxeko hondakinen  
% 80 baliaraziak.



## INSTALAZIOAK MODERNIZATZEA eta bilketak aldatzea

2017. urtean, zerbitzu publikoaren ekipamenduen segurtatze eta modernizatze lanak egin dira oraindik ere. Halatan, bada, Donapaleuko, Akamarreko eta Bardozeko hondakindegia guztiz zaharberritu eta berrantolatu dira, erabiltzaileak hobeki hartzeko eta sailkapen aukera gehiago emanez. Donazarreko hondakindegia berri-berria 2018ko apirilean hasiko da lanean.

Euskal Elkargoak bilketak aldatzen ere egin ditu ahaleginak, hala nola Basusarrin, non etxez etxeko bilketa egitera pasa dira, edota Donoztirin, non erabiltzailea nor den jakiteko sistema duten erdi lurpean kokatu edukiontzia ezarri baitira. Garazi-Baigorriko lurraldean, aldaketari 2017an ekin zitzaion, erabiltzaile guztiei egin galdeketarekin. 2018ko udaberrian hasiko da indarrean. Bilketa aldaketek etxeko hondakinen iduriko hondakinen kopurua murrizteko helburua dute (2020rako helburua: -% 10 etxeko iduriko hondakin 2010ean baino, (593 kg/bizt/urteko) eta sailkaturiko hondakinen kopurua handitzea (2020rako helburua: 100 kg/bizt/urteko; 2016an: 83 kg/bizt/urteko izan ziren). Aldaketa horiekin eta hondakindegia segurtatzeko eta berrantolatzeko lanekin jarraituko dugu 2018an ere.



## LEHENTASUNA,

## hondakinak sortzea saihestea

«Hondakin onena, kudea errazena, sortzen ez dena da». Lurraldean badira hainbat eta hainbat jarduera hondakin gutxiago sor ditzagun: «Pubarik Ez» kolakiak egin eta banatzea, banakako etxeei edo kolektiboari lurbeltz kutzak ematea, jokamolde berrien alde ohartaraztea... Prebentziorako tokiko programa bat prestatu da, lehentasunezko eskuhartze bideak, bai eta lurralde mailan koordinatu eta partekatu ekintza planak zehazteko asmoz.



## HONDAKINAK

## ahal beste baliaraztea

Egun Euskal Elkargoak daraman politikaren helburua biltzen diren hondakinak ahal beste birziklatzea eta baliaraztea da. Bil Ta Garbi sindikatuarekin elkarlanean, berrerabiltze ekintzak ematen ditu plantan. Lurralde osoan zehar hedatu ditu biltze eta berrerabiltze guneak eta partzuergoak egiten ditu gauzei bigarren bizitza ematen arduratzen diren elkarteekin (Txirrind'Ola, Recycl'arte, Respyr'Action...).



## IPAR EUSKAL HERRIA

## «Zero Hondakin, Zero Xahutze Lurraldea»

Euskal Elkargoak parte hartzen du «Zero Hondakin, Zero Xahutze Lurralde» ekintzetan. Label hori Ingurumenaren, Energiaren eta Itsasoaren Ministerioak ematen du eta Bil Ta Garbi sindikatuak animatzen duen lurraldeko urraspide bertutetsua agerian ematen du. Eragile publiko eta pribatuen arteko gobernantza batez eta ekonomia biribileko dinamika batean, hondakinak murrizteko eta kudeatzeko politika zehazten eta gauzatzen lan egiteko helburua du urraspide horrek.



OROREN ONDASUNAK  
JORITZEA ETA  
TRANSMITITZEA

# UR BALIABIDEAK ETA INGURUNEAK ZAITZEA

## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Ura nonahi dugu Euskal Hirigune Elkargoan eta horrek aukera anitz dakarkio lurraldeari, bereziki bizi ingurune hauta, paisaia eta ingurune mota anitzekin (mendi erreka, kostaldeko ibaiak, bartak...), eta erabilera anitzetarako bide ematen duen baliabide oparoa.

Baliabide horren kalitatea aise andea daiteke, halere. Lurraldea oso erakargarri izan eta horrek dakartzan erabilera eta jardun ekonomikoek eraginik.

Euskal Hirigune Elkargoak ontzat eman zuen, 2017an, ura koherentekei eta lurraldeen arteko elkartasuna bermatzeko gisan lantzeko printzipioa. Hartara, 2018ko urtarrilaren lehenetik goiti, «ur» eta «saneamendu» eskumenak bere gain hartzea hautatu du, bai eta «Ur inguruneen kudeaketa eta uholdeak saihestearen» eskumena (GEMAPI), uraren ziklo handiaren kudeaketari loturiko hautazko eskumenez osaturik.

Ordurarte, eskumen horiek Euskal Hirigune Elkargoak eta hainbat sindikatu eta herrik zeramatzaten. 2018. urtea eskumen horiek lurralde osoan gauzatzeko eta kudeaketa moldeak pixkanaka aurrintzen joateko urtea izanen da, lehen-lehen betebeharrak delarik zerbitzuaren kalitatea mantentzea eta herritarrengandik eta herriengandik hurbil izatea.




## GILTZA ZENBAKIAK

% 80

2017an, ibai-erreken luzera osoaren % 80 kudeaketa eremu baten barnean ziren.


Edateko ura: banaketa sarearen emaitza % 80koa, 2017an.



## AITZINATZE AUKERA

## JARRAITZEA

Ibai-erreken funtzionaltasunak eta uraren kalitatea hobetzeko ahaleginetan jarraitzea eta, horrenbestez, ur baliabidea gero eta hobea eta segurtatuagoa izan dadin laguntzea (edateko uraren hartuneen kalitatea segurtatzea).



## URAREN ZIKLOARI LOTU ESKUMENAK Ipar Euskal Herri mailan gauzatzea

«Uraren» eskumenean edateko uraren zerbitzurako zeregin guztiak sartzen dira, ekoizpenetik banaketaraino. «Saneamenduaren» eskumenak, berriz, saneamendu kolektiboa eta kolektibo ez dena hartzen ditu bere gain, bai eta euri uren kudeaketa ere. Eskumen horiek bere gain hartuz, Euskal Elkargoak uraren kudeaketa oso eta integratua egin nahi du, jeinuak batuz, erabilera guztiak bateragarri bihurtuz eta zerbitzu publikoaren eraginkortasun ahal bezain ona eginez. Baliabidea ahal bezain ongi babesten aritzen da, banatze zerbitzu eta edateko uraren kalitate akasgabeak bermatzen eta, azken batean, uraren kalitatearen alde aritzen, hala ur geza nola itsasokoa izan.

Helburu bera dute «kutsaduraren aurkako borroka» misioak eta «ur baliabidea eta ur inguruneen, itsasadarren eta itsas hegien kalitatea zaintzeko dispositiboak plantan ematea» izeneko misioak, biak Ur Inguruneen Kudeaketaren eta Uholdeak Saihestearen eskumenari



## HEZEGUNEAK hobeki ezagutu eta zaindu


Euskal Kostaldeko Uren Antolaketa eta Kudeaketa Eskemaren eremuan (UAKE-SAGE), azterketa bat abiatu zen 2017ko otsailean, Elkargoak bultzaturik, hezeguneen zerrenda egiteko. Lurraldean dauden hezeguneak non dauden eta zer eragin duten homogeneoki ezagutu nahi da, hiri plangintza eta antolaketa gaien inguruko gogoetak laguntzeko. Horrez gain, hezeguneak non diren jakinez, haien funtzionaltasunak optimizatzeko ekintzetarako argibideak ukanen ditugu. Aturriren behere aldeko Uren Antolaketa eta Kudeaketa Eskemaren lurraldean Aturri erakundeak egin bidean duen zerrendatzean erabiltzen ari den metodologia berdina dugu gure oraingo honetan ere. Emaitzak 2018ko udarako prest izanen direlakoan gara.

Azterketa horren osagarri, hezeguneen, urmaelen eta kudeatzaileen egoera-akta bibliografiko bat egingen da, Ipar Euskal Herriaren mailan, Euskal Elkargoak ekar lezakeen gainbalioa zehazteko.



# NATURAREN HALABEHARRETARA

## EGOKITZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Itsas hegiaren etengabeko higadurak eta behin eta berriz errepikatzen diren itsasperatze eta uholde gertakariak gogora ekartzen digute, gogorarazteko beharrik balitz, lurraldea klima aldaketan eraginaren arriskupean dela.

Egokitzea egiteko nagusia zaigu, hortaz, berotegi efektuko gas isurketak murrizteko ekintzen baitezpadako osagarri gisa.

Euskal Hirigune Elkargoa, hartara, ezagun zaizkion natura arriskuei arrapostu zehatzak eman nahian ari da lanean. Itsas lerroaren bilakaerara egokitzeko eta naturaguneak betiere zainduz, ondasunak eta pertsonak segurtatzeko ekintza programa bat koordinatzen du. Hemendik hara, badu uholdeen prebentzioaren eskumena bere lurraldean, Ur Inguruneen Kudeaketaren eta Uholdeen Prebentzioaren eskumenaren barnean (GEMAPI), 2018ko urtarrilaren lehenaz geroztik bere gain baitu eskumen hori.

## GILTZA ZENBAKIAK

### 0,2 m/an

Itsas hegi arrokatsuak urtean 0,2 m egiten du gibelka, batez beste; hondar itsas hegiak, berriz, 0,5-1 m/urtean. Itsas hegien etengabeko gibelatze horren ondorioz, 40 saltegi eta 529 bizileku dira higaduraren arriskupean hemendik 2043. urtera bitartean, egungo kudeaketa moldeak ez badira birpentsatzen.



## AITZINATZE AUKERA

## AITZINA HARTZEA

Euskal Elkargoak itsas hegiko arriskuak kudeatzeko estrategia bat erabaki du (85 km kostaldean) eta Uholdeen Prebentziorako bi Ekintza Programa gidatzen ditu (UPEP asmoak), lurraldearen % 42 hartzen dutenak. Arriskuaren kultura herritarrekin hobeki partekatu nahi luke.



## ITSAS HEGIAREN HIGADURA ETA ITSASPERATZEA

### Ulertu, aitzinetik hobeki ekiteko

Euskal Elkargoak eta itsas hegiko herriek hobe ezagutu nahi dituzte itsas hegian eragiten duten prozesu hidrodinamikoak, geologikoak eta ozeanologikoak, beren costa zerrendaren kudeaketari ahal bezain ongi ekinen badiote aitzinetik. Horretaz oharturik, Euskal Itsas Hegiko Zientzia Intereseko Taldeko kideek «itsas hegiko arriskuak» mugazgairako lantaldea osatu zuten, 2015eko uztailean, kolektibitateek alor horretan dituzten kezkei arrapostu emateko proiektuak ateratzeko; horien artean dugu MaRea proiektua «Modelizazioak eta Erabakiak hartzeko Laguntza, itsas hegiko arriskuaren aitzinean euskal Atlantikoan». Proiektua 2016tik 2019 bitartekoa da eta Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzarako Programa Eragileak (POCTEFA) diruz laguntzen du.



## ITSAS HEGIKO ARRISKUAK

### kudeatzeko tokiko estrategia

2012tik 2014ra bitarte, euskal itsas hegian, 2023-2043aren epemugan dukegun «itsas hegiaren higadura» gorabehera neurtzeko azterketak egin ziren. Emaitzak itsas hegiko arriskuaren kudeaketarako tokiko estrategia prestatzeko baliatu dira. Erabakia laguntzeko egiazko tresna horrek bideratuko ditu datozen hogeitau urteetatik berrogei urteetara itsas lerroak eginen duen gibelatzeari kontra egiteko edo egokitzeko kudeaketa hautuak. Horretarako, lehenasunezko ekintzen programa zehazten du: hondartzak berriz hondarreztatzea, itsas ezpondak indartzea, pixkanaka gibelka egitea...

Euskal Hirigune Elkargoak koordinatzen eta animatzen du programa hori, itsas hegiko herriekin elkarlan betean, eta horretarako, 2021. urtea bitarte, 25M euroko aurrekontua du. Herriek eta herri taldeek programa horren barnean daramatzaten ekintzak diruztatzen ditu ere, eta 2018an, itsas lerroaren bilakaeraren jarraipena eginen du.



## UHOLDEEN

### gorabeherak kudeatzea

2016. urteaz geroztik bi asmo urraspide («Euskal Kostaldea» eta «Errobi») gidatu ditu Euskal Hirigune Elkargoak Uholdeen Prebentzio eta Ekintza Programaren (PAPI) bidez, eta 2018az geroztik, «Euskal Kostaldean Uholde Arrisku Handitan den Lurraldea» uholde arriskua kudeatzeko tokiko estrategia bat; horrenbestez, elkargoak osoki ekin nahi dio ibaietatik nola itsasotik letorzkeen uholdeen kudeaketaren gaiari. Batera egin behar dira herritarren ohartaraztea; lurraldearen antolaketa, arrisku gutxiago izan dadin; alerta hobetzea, bai eta halabeharraz babesteko ekintzak ere.

Ekintza hori osatzeko, 2018an, obra hidraulikoen zerrenda eginen du, bai eta, Ur Inguruneen Kudeaketaren eta Uholdeen Prebentzioaren eskumenaren (GEMAPI) izenean, Euskal Hirigune Elkargoaren eskumenean sartu beharko diren itsas harresi sistemen zehaztea.



# NATURAREN LEKUA ERRESPETATZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Atlantiko itsasoaren, Pirinioen eta Aturriko ordokien artean kokaturik, Ipar Euskal Herriak hainbat espazio eta paisaia du: muinoak, mendiak, ibaiak, kostaldea, baso eta oihanak, mendi bizkarrak, larre idor nola hezeak eta abar. Inguruneen mosaiko horrek hainbat bizileku eskaintzen die landare eta abere espezie anitzi.

Bikaina eta beste lurraldeetako baino hobeki zaindua izanik ere, tokiko natura ondareak zapatze zenbait jasaten du: hiritartzeak, garraio azpiegiturak, laborantzaren galtzea, turismoaren oldarra, itsasoaren higadura, espezie inbaditzaileak... Jokoa duenaz oharturik, Euskal Hirigune Elkargoa egunean-egunean ari da ondare hori atxikitze lanetan eta bere kargura dituen naturaguneen kudeaketan.



## GILTZA ZENBAKIAK

117 965 ha

117 965 ha ziren, 2017. urtean, Natura 2000 zonaketaren barnean, Ipar Euskal Herrian, hau da, lurraldearen eremu osoaren ia % 40 (itsas zonak alde batera utziz).



## AITZINATZE AUKERA

## HOBETZEA

Natura 2000 zonaketak hartzen dituen zonen garrantziak guneen arteko koordinatze lanetan jarraitu eta hobetzerara deitzen du, bai eta egiten direnak ezagutzera ematera.



## NATURA 2000

### bioaniztasun gune ohargarriak

Natura 2000 naturagune babestuen europar sarea da, bioaniztasuna atxikitzen laguntzeko, betiere lurraldearen ekonomia, gizarte, kultura eta eskualde betebeharrak kontuan hartuz.

Ipar Euskal Herriko Natura 2000 sareak 32 gune ditu eta horietako 8 Euskal Elkargoak kudeatu eta animatzen ditu zuzenean.

Natura eta ekonomia jardunak elkarrekin molda daitezela lagundu nahiz beti, Euskal Hirigune Elkargoak, Mendialdearen Sindikatu Batzordeen Elkartarekin elkarlanean, gida soil, pedagogiko, irudidun bat argitaratuko du, 2018an, abeltzainei landareak ezagutzen laguntzeko. Tresna horrek leku babestuetako landaredia ezagutzera emanen du eta laborantzarentzat eta abereen osasunarentzat duten interesa ekarriko ditu ere, bai eta habitat horien bilakaera zantzuak ere (eutrofizazioa, aniztasun galerak, zapadura, gehiegizko alhatzea, etab.).



## BIOANIZTASUNAREN

### sei baratze

Euskal Hirigune Elkargoak Bidaxune lurraldeko sei herrixkatan gaikako sei baratze pedagogiko egiteko proiektua darama. Baratze bakoitzak ondare elementuen balioa agerian emanen du, hala kulturaren historiakoak izan nola paisaiakoak edota eraikinenak, bakoitza gai baten inguruan arituz: baserri baratzea Bardozen, medikuntza baratzea Burgue-Erreitin, Erdi Arokoa Bidaxunen; Apezaren baratzea Akamarren; fruitu baratze eta antzinako mahastiak Gixunen, eta, azkenik, ur baratzea Samatzen.

Informazio taulak eta taula pedagogikoak emanen dira plantan 2018. urtean. Gaiaren inguruko ezagutza eskainiko dute, hautatu landareen gainekoa, baratzeko gauzen eta bestelako atseginbideen gainekoa.



## NATURA ONDAREARI BURUZKO

### artelan baten eskaria egitea

Partzuergoan egin proiektua da eta artistek, zientzialariek, lizeoko ikasleek, biztanle taldeek bioaniztasunaren eta natura ondarearen gainean eman soak gurutzatzeko aukera emanen duten parte hartze bidezko hiru arte aurkezpen egitea bultzatzen du. Proiektuak hiru fase nagusi ditu: lurraldeak nabarmenki irudikatzeari buruzko aurkikuntzen eta ikerketen fasea, arte eskuhartze eta jardunen fasea, eta, azkenik, ikusle guztiak mintzatzeko tartea.



## OROREN BEHARRETARA EGOKITU ZERBITZUAK ANTOLATZEA

# ELKARBIZITZA GARATZEA

## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

2017an sortu zenetik, Euskal Elkargoak, ordurarte eskaini hurbileko zerbitzuen jarraipena eginez, zenbait ekintza daramatza haur txikien alorrean, gazteen alorrean, adinekoren eta ezintasunen bat dutenen laguntzan, prekarietatearen alorrean, osasunarenean, kirolaren eta kulturarenean...

Bere antolaketan, 2018ko urtarrilaren lehenetik goiti honako eskumen hauek bere gain hartzea erabaki du: «Elkargoaren Intereseko Gizarte Ekintza», «Elkargoaren Intereseko Kultura eta Kirol Ekipamenduen Kudeaketa» eta «Publikoarentzako Zerbitzu Etxeen Sortze eta Kudeatzea». 2018an erabakiko da nola gauzatuko dituen eskumen horiek, zeregin nagusia zaiolarik lurraldean elkartasuna mantentzea. Gizarte zibilari gogoetetan parte hartzera gonbidatuko du, elkar aditze bilkuren bitartez.



## GIZARTE EKINTZAKO politika zehaztea

Euskal Hirigune Elkargoak gizarte ekintzaren alorrean duen eskuhartze eremua zehazteko, lurraldeak dituen gizarte beharren azterketa bat eman zuen abian 2018ko hastapenean. Azterketa horrek diagnostiko partekatua egin eta jarduteko lehentasunak zehazteko aukera emanen du. Azterketaren emaitzak uda hastapenerako agertzekoak dira. Gaien arabera lantaldeetara gizarte lanetan ari diren gizarte zibilaren eragileak bilduko dira.



## GILTZA ZENBAKIA

% + 0,9

Ipar Euskal Herriak  
2015ean zuen biztanleria:  
302 980. + % 0,9ko  
batezbesteko hazkundera  
urteko, 2010etik 2015 arte,  
betiere lurraldeen arteko  
egoerak elkarren oso  
bestelakoak direlarik  
(ikus mapa).



## AITZINATZE AUKERA

## OPTIMIZATZEA

Elkargoak herritarrei  
lurraldeen eta haietako  
biztanleen beharretara egokitu  
zerbitzuak nola proposatu  
hausnartzen du.



## TOKIKO EKIMENEN TROFEOAK

### Elgarrekin-Mugitu-Plazara

Euskal mendialdean gizarte lotura sortzen duten tokiko ekintzen dinamika sustatu eta dinamika horren balioa azaltzea ziren 2017an antolatu trofeo horien lehen aldiaren helburua. Heldu ziren 61 hautagaietatik 43 izan ziren argitara emanak, azaroan zehar linean egin bozketa baten bitartez, zeinean 7 200etik gora boz eman baitziren. Bost elkarte saritu ziren, abenduaren 13an Mendiben egin sari banaketa saioan.



## ZERBITZU PUBLIKOAK ororen esku

Garraioetan eta gainerako alor guztietan, Euskal Hirigune Elkargoa bere zerbitzuak ezintasun bereziren bat dutenei helgarri egiten saiatzen da. Helgarritasuna beren-berengiz lantzeko lanpostua sortu dugu 2017. urtean, zerbitzu guztiak zeharkartuko dituen ezintasunari buruzko politika dinamikoa antolatzeko.

Kolektibitateak ezintasuna gizartean irudikatzearen diren moldeak aldatzen joan daitezela lagundu nahi du ere. Horren erakusle da JACOB@CCESS proiektuan parte hartu izana; proiektu horrek Konpostelarako bideetako gunetan – Ostabatekoa tartean – helgarritasuna hobetzeko egituren nazioarteko sarea sortzeko xedea du.



## DIGITALAREN AUKERA publikoaren zerbitzurako etxeetan 2018an

Maulekoaren ondoren, Euskal Elkargoa Donapaleuko bere Zerbitzu Publikoen Etxea labelizatzeko ari da lanean. Etxe horiek, materiala (fotokopiagailua, Internet lotura) eta bilkura gelak eskaintzeaz gain, ororen esku jartzen dituzte zerbitzu publiko anitz, partaide dituztenen harreraz zerbitzueilekueginez: Pôle Emploi, Euskal Herriko Gazteen Etorkezunerako Tokiko Misioa-Mission Locale Avenir Jeunes Pays Basque, Familia Laguntzarako Kutxa-Caisse d'Allocation Familiale, ekonomia alorreko ganberak... 2018. urteaz geroztik, IKTetatik urrunen direnei digitala eskura emateko lana egin da bi etxe horietan.



# OSASUNA ETA ARTAMENDUAK OROREN ESKURA

IZAN DAITEZEN BULTZATZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Lurralde batean, osasun erronkei erantzuten saiatzeko, zeharkakotasunean kokatu behar da, zeren erronka horiek antolakuntzari loturik diren bezalaxe (osasun eskaintzaren antolaketa, osasun etxeak eraikitzea...), osasun eta gizarte ekintzari ere (prebentzio ekintzak, osasun zaintza...) eta herritarren heziketari ere loturik baitira.


Euskal Hirigune Elkargoak, 2017an, jarraitu ditu bere lurraldean jadanik abiatuak ziren ekintzak. Haratago joateko, 2018an, Ipar Euskal Herriaren beharrak zehazten eta horiei buru egiteko estrategia prestatzen arituko da.



## GILTZA ZENBAKIA

1,2 / 1 000

Lurraldean 2015eko urtarrilaren lehenean ziren orotako medikuen kopurua: 1,2/1 000 biztanleko. Kopuru horrek, dena den, lurralde batetik bestera artamenduak eskuratzeko dauden desberdintasunak ezkututzen ditu.



## AITZINATZE AUKERA

## JARRAITZEA

Euskal Elkargoak osasun etxeak sortzen darrai, osasuneko profesionalak haietan koka daitezen bultzatzeko.



## ARTAMENDUAK ESKURATZEKO erraztasuna lurraldeko leku orotan

Baserrialdeetan mediku gabetzeari kontra egitea, osasuneko profesional gazteak erakarri eta koka daitezen laguntzea: hori da diziplinanitzeko osasun etxeek duten helburua. Leku berean hainbat diziplina eskaintzeak (orotako medikua, kinesiterapeuta, erizainak...) eriengandik hurbilen den ekintza koordinatua eskaintzeko bidea irekitzen du. Barkoxekoaren ondoren, Maulen, Atharratzen eta Donapaleun eraikiko ditu, datozen urteotan, Euskal Elkargoak, osasun etxe berriak.



## PREBENTZIOA osasun ekintzen bihotzean

Euskal Kostalde-Aturri Tokiko Osasun Kontratua prebentzio gaiei begira delarik, Baxe Nafarroa-Xiberokoak, berriz, biztanleriaren zahartzeari loturik sortzen diren beharrak aitzinetik lantzeko helburua du, bai eta prebentzioa garatzeko helburua, batez ere gazteen artean. Lurralde horietako partaide nagusiak (hautetsiak, Eskualdeko Osasun Agentzia, Eritasun Asurantza, ospitaleak eta osasungintzako zentroak) bildu eta autonomia galtzen ari direnen eta haien laguntzaileen beharrei arrapostua eman ahal izan zaie horrela. Buruko osasunerako, sexualitateari buruzko eta mendekotasunezko jokabideei buruzko prebentzio ekintzak bultzatzen ditu, bai eta gorputz ariketak eta kirola egitera akuilatzen ere.



## BARNE AIREAREN KALITATE hobea elkargoaren ekipamenduetan

Barneko airea kalitate eskasekoa izateak arras kaltetu dezake pertsonen osasuna, batez ere ahulen direnena, zeinetan lehenak haurrak baitira. Arazo horretaz oharturik, Euskal Hirigune Elkargoa garbikari kimikoak haurtzaindegietatik kentzen ari da. Horien ordeztu, bestelako baliabideak eskaintzen dira eta langileei metodo berriak erakusten zaizkie, kalitate hobeko airea hatsartu eta ororen ongizatea areagotu dadin.



# KULTURA, HIZKUNTZAK ETA AISIALDIA

ESKURAGARRI EGITEN  
LAGUNTZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Euskal Elkargoaren abiatzeak ukan dituen une garrantzitsuenen artean dugu Elkargoaren Kontseiluak euskara eta euskal kulturaren gaineko eskumena hartu zuen eguna, 2017ko otsailaren 4a, alegia. Hori egin eta ia 600 K€ gehiago ekarri zizkion tokiko blokeak Euskararen Erakunde Publikoaren aurrekontuari; Euskal Hirigune Elkargoak du, hemendik goiti, erakunde horren lehendakaritza. Elkargoak argi azaltzen du, horrenbestez, hizkuntza politikan duen asmo handia; hizkuntza politika hori euskararen eta gaskoieraren inguruan zehaztu eta hedatuko du, 2018. urtetik goiti.


Biztanleak eta profesionalak mobilizatzen dira eta biltzen lurraldean diren hizkuntzak eta kulturak lantzeko eta kirol eta aisialdiko jardun anitzetan aritzeko. Eskaintza eskura jartzea, kalitatezko jarduerak eskaintzea, betiere diferentzien eta jardun horiek garatzeko erabiltzen diren ekosistemen errespetuan, lurralde kohesioa eta elkartasuna sustatzea da.



## GILTZA ZENBAKIAK

% 30

2016an, biztanleen ia % 30 ziren euskaraz mintzatzeko edota ulertzeko gai (% 20 elebidun ziren). Lehen aldikoz, belaunaldi berriak, euskara eskolan ikasi dutenak eta ikasten ari direnak heldu dira biztanle euskaldunen zahartzeak ekarri dituzten galerak berdintzera.



## AITZINATZE AUKERA

JARRAITZEA

Euskal Elkargoak ahaleginetan jarraitu nahi du euskara eta gaskoiera garatzen, hala hiztun berriak formatuz nola erabilerak garatuz.



## EUSKARA mugarik gabe erabiltzea

Urteak badira euskararen erabileraren aldeko jardunetan ari garela; horietako ekintza zenbait Bidasoz beste aldeko auzoekin batera. Hartara, badugu euskararen SAREUSKA sarea, 2014an sortua, zeinak Euskal Hirigune Elkargoa, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Bidasoa Txingudi Partzuergoa lotzen baititu. Sareuskak Mintzodromoaren 4. aldia antolatu zuen 2017ko abenduaren lehenean. Ehundik gora parte hartzaile bildu ziren Lesakan (Nafarroa) eta mintzatu ziren, talde txikitan, tokiko eta eguneroko gaien inguruan, lagunarteko giro atseginean.



## KULTURA Biltzarra

Kultura Biltzarra antolatuko da 2018ko udaberrian. Hor, Euskal Elkargoa lurralderako kultura proiektua prestatzera lotuko da, elkarlan hertsian kultura eragileekin, Herriekin, Departamenduarekin, Eskualdearekin eta Estatuarekin. Euskal biztanle orori kalitatezko kultura eskaintza eskura jartzea da asmoa, amateur jardunak eta jokalaria profesionalen adierazpena bateratuz.



## INGURUMENA ZAINTZEN DUTEN kirol azpiegiturak

Euskal Hirigune Elkargoak zortzi igerileku kudeatzen ditu zuzenean, besteak beste, Donibane Garaziko ur jostaleku berri-berria. Leku horrek 2017ko azaroan ireki zituen ateak. Bertako biztanleentzat da pentsatua, eskolarrentzat, baina baita turistentzat ere; bainatoki estali bat eskaintzen du, bai eta kanpoalde bat ere, igerileku batekin eta jostatzeko bainatokiekin.

Ur aska guztietako eta dutxetako ura egur berogailu nagusi batek berotzen du, handik 400 metrotara den «Luro Fundazioa» ere berotzeaz gain.

Donapaleuko igerilekuaren zaharberritzeari ere 2018an ekinen zaio.


## BAI ETA...

Ipar Euskal Herrian ibilketa garatzeko eskema aztertzen ari gara. Emaitzak 2018an ukanen ditugula uste dugu.





# SENTSIBILIZATZEA, FORMATZEA ETA INFORMATZEA



## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Garapen eredu bertutetsuago baterantz abiatzeko, guztiok behar dugu horretara lotu. Ohartzeaz gain, ekitera pasatu behar eta, jokabideak aldatzea gaitz baita, laguntza behar duen ahalegina da hori.

Euskal Hirigune Elkargoak ongi ulertu du hala dena. Hartara, programa zenbaiten bidez, jendeei garapen iraunkorrarekin jokoan dugun guztia azaldu nahi die eta aldaketaren eragile bilaka daitezten formakuntza eskaini, bitartekaritza mota zenbaiten bitartez, zein praktiko, zein jostagarri, zein sentikortasuneko.



## GILTZA ZENBAKIA

% 25

2017ko Energia Positibodun Familiak erronka: 15 sendi parte hartzaile Garazi-Baigorriko lurraldean. 2016ko abendutik 2017ko apiril bitarte; honenbeste erdietsi dute:  
- % 18tik % 25 arteko energia ekonomia;  
- % 20tik % 30 bitarteko ur ekonomia.



## AITZINATZE AUKERA

## AREAGOTZEA

Euskal Elkargoak jarraitu behar ditu eta Ipar Euskal Herri osora hedatu, sentsibilizatzeko dituen baliabideak.



## ENERGIA ekonomiak

Nork bere etxean egin ote ditzake, ekokeinu soilen bitartez, ingurumena babesteko ekintza eraginkorrik? Garazi-Baigorriko lurraldean antolatu den Energia Positibodun Familiak erronkan parte hartu dutenek baietz erantzun dute. Erronka hori baliabide jostagarria da, energia eta ur ekonomiaz ohartarazteko eta ekintzak saiatzeko. Beren borondatez aurkezten diren sendiak taldeka bil eta neguan beren kontsumoa % 8an behintzat murrizteko parioa egiten dute. Baliabide hori Zuberoan ere esperimentatu zen, 2016an, arrakasta onarekin ere.



## HONDAKINAK kudeatu eta baliaraztea

Euskal Elkargoak gure kontsumitze moldeei loturik den behargabeko xahutzea murrizteko jokabideen aldeko hainbat eta hainbat ekintza gauzatzen ditu bere lurraldean (konponketaren aldekoak, berrerabileraren aldekoak, etab...). Truk'Eguna horren adibide bat da. Hirugarren aldia Mendiondon egin da, Bil Ta Garbi sindikatuarekin lankidetzan; eguna trukategi batekin (gauzak, jantziak eta landareak), hitzaldiekin eta lantegiekin antolatu zen. 150etik gora pertsona bildu ziren.



## MENDIKO jokabide onak

Mendia ezagutu eta ibiltzean pertsonak segur ibil daitezten eta ondarea ezagutu eta zainduz, bai eta gainerako erabiltzaileak kontuan hartuz ere (abeltzainak batez ere), Euskal Elkargoak, Herriekin batera, informazioa emateko seinalea molde homogeneoa hedatuko du mendialdean jende anitz dabilen lekuetan (aparkalekuak, ibilketa bideen abiapuntuak, etab.). Bestelako ohartarazte ekintzak ere egingen ditu EHMEB Sindikatu Batzordeen Elkartearekin batera (filmak, eskuorriak, animazioak...).




## EREDUGARRI

# IZATEKO ASMOA

## TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Euskal Hirigune Elkargoak asmo argia du: bere funtzionamenduan eta bere ekintzetan eredugarri izatea, garapen iraunkorraren alde guztiak bere egiteko orotan kontuan hartuz: gizarte aldea, ingurumen aldea, ekonomia aldea eta kultura aldea, zeharkako printzipioaz hartuz demokrazia eta eragileen parte hartzea.



## ENERGIA

Euskal Elkargoak jarraitu du, 2017an, bere eraikinen energia berriztapena egiten (Bankako La Rosée zentroa, Mauleko Publikoarentzako Zerbitzuen Etxea). 2018an, bere lekuen energia kontsumoen jarraipena antolatu nahi du, energia gehien xahutzen dutenak zeintzuk diren jakin eta haien emaitza hobetzeko. Energia fotovoltaikoa garatzeko aukera ederra eskaintzen duten eraikinak ere zerrendatuko dira aldi berean.

Bil Ta Garbi sindikatua ere gogoetetzen ari da birgaituak izan diren lehengo biltegiatze zentroetan panel fotovoltaikoak plantan emateko aukeraz.

Horrekin batera, Euskal Hirigune Elkargoak eta Baiona, Biarritze eta Bidarteko Herriek elkarrekin sortu eroste taldearen barnean, Elkargoaren Etxea, lurralde eremuetako egoitzak, Arkinova jardunen sortze lekua eta lurraldeko hondakindegiguztiak %100ean berde den eta ekoizte unitate txikiek sortzen duten argindarrak dira elikatuak. Enercoop sozietate kooperatiboak du Frantzia ekoizti eta %100ean berriztagarri den energia horren hornitzen. Erosle talde hori du kooperatiba horrek nazio mailan duen lehen bezero kontsumitzailea.



## ESKARI PUBLIKOA

2017an, Euskal Elkargoak gizarte klausulak sartu ditu merkatu publikoetan. Urtean, 1 154 oren atxiki dira, hortaz, gizarteratze ekintza bat egiteko. 2 514 oren gehiago aurreikusiak dira hemendik 2019 bitarte, 2017an gaztigatu merkatuen izenean.

Gizarteratze egiturekin -hala nola Lagun elkarte, Adeli edota Mifen erakundea- sinatu hitzarmenen bitartez, Euskal Elkargoak lanetik urrun ziren pertsoneri eman dizkie zenbait lan (berdeguneen zaintza, ibilketa xenderak seinalatzea, sailkako bilketarako tokien garbiketa...).

Ekintza horiekin jarraitzeaz gain, erosketa ekoarduratsuei buruzko funtsezko lan bati ekinen diogu 2018an, Akitaniako Erosle Publiko Arduratsuen Elkartearen laguntzaz. Tresnak partekatze ohitura garatu beharko da, hondakinak murriztu, berrerabili, birziklatu eta baliarazteko estrategia publikoa garatuko badugu (metodologia gidak, Enpresen kontsultarako ereduak dosierak).



## OSASUNA eta bizi kalitatea lantokian

2017an, Euskal Elkargoak «Bizi Kalitatea Lantokian» izeneko zerbitzua sortu zuen eta helburutzat eman zion langileen bizi eta lan baldintzen kalitatea zerbitzu publikoaren kalitatearekin batera zezan. Zerbait egiten hasiak gara jadanik horretan. Hala egin da hondakinen alorrean, langileen lan baldintzak seguruago egiteko ekintza jakin zenbaitekin (bilketa itzuliak berrantolatu, ibilgailu gehiago, babes ekipamenduak taldeka hautatzea...). Areago, 2018an, lurralde osoan higiene eta segurtasun politika garatzeko asmoa dugu.

Formakuntzak ere eragiten du lanean den bizi kalitatean: trebetasunak lanbideen bilakaeretara egokitzea, gaitasun berriak eskuratzea... «Lanpostuen eta gaitasunen kudeaketa» zerbitzu bat sortu dugu ere, langileek bilakaera profesionala egiteko dituzketen behar eta nahiei erantzuteko.



## MUGIKORTASUNAK

Euskal Elkargoak bere barneko mugikortasunak birpentsatu behar ditu eta hautetsiei eta langileei bestelako aterabideak eskaini behar die. 2017. urtean, hidrogeno bidezko 13 txirrinda erosi ditu. Ibilgailuen flota berritzen (baita elektrikoak ere eta hondakinen bilketakoak) jarraituko du 2018an, bai eta areagotuko ere. Aurreikusia dugu lurraldeetan argindar kargaguneak hedatzea ere. Azkenik, barneko mugikortasunerako plana prestatzeari buruzko gogoetari ekinen diogu.



## EMAZTEEN ETA GIZONEN arteko berdintasunerako europar gutuna

Tokiko Bizitzan Emazteak eta Gizonak berdintzat tratatuak izateko Europar Gutunak lurralde kolektibitateak deitzen dituzten gai hori beren politika publikotansartzera. Gutun hori onartuz, Euskal Hirigune Elkargoa berdintasunerako ekintza plana prestatzera engaiatzen da, plan horrek lehentasunak, ekintzak eta horien betetzeko baliabideak ezar ditzan.

# 2017KO GARAPEN IRAUNKORRARI BURUZKO TXOSTENA

Communauté  
D'AGGLOMERATION  
**PAYS BASQUE**  
**EUSKAL**  
HIRIGUNE  
Elkargoa



*Euskal Hirigune Elkargoak obraturiko argitalpena  
Foch etorbidea, 15 CS88507 – 64185 BAIONA Cedex  
[www.communaute-paysbasque.fr](http://www.communaute-paysbasque.fr)*

*Sorkuntza grafikoa eta muntaketa : Studio WAAZ  
Euskarazko itzulpena : Bakartxo Arrizabalaga  
Inprimaketa : Mendiboure*

*2018ko martxoa*